

## Ihesi

ONINTZA IRURETA

Argazkiak: Batiste Ezeiza

Euskal Herria ezagutuz: **Orio (Gipuzkoa)**

# Txalupa eliz atarian

Itsasoz eta ibaiz, orain baino lehen gehiago, inguratutako herrira goaz. Eliz atariko hormetan ontziak lotuta egongo ziren garaira itzuliko gara.

KOSTAKO herri gehienek hala egin dute. Itsasoari puska jan. Oriok ere bai. Herria ezagutzen duzuenok saiatu irudikatzen: itsasoa eliz atariraino. Hor hasiko zen garai bateko Orio, esan nahi dugu Donostiako auzo zenak hor izango zuela itsasorako atea. Imajinatu elizatik abiatuta aldapan gora kale luzea eta kale horren bukaeran beste atea, lehorreko atea. Bi ate horiek babestuko zuten gero herri bihurtuko zen

auzoa. Kalearen alde banatan etxeak, lehenengo ilaran garrantzitsuenak eta ondoren bigarren mailakoak. Baita baratzeak ere. Eraikinetik eraikinerara tartea egongo zen, ez jendeak kalean paseatzeko ohitura zuelako, baizik eta suteak izanez gero suebaki lana egiteko. Horixe garai bateko Orio, itsasoak eta ibaiak inguratutakoa, batak zein besteak bizi zuena.

Antxon Aguirre Sorondo antropologo donostiarrek Oriori buruzko

liburua idatzia du eta berak eman dizkigu herria kokatzeko zehaztasunak. 1180. urte inguruan bagenekien Orio Donostiako auzoa zela, orduko agirian agertzen baita Donostia Hondarribia, Arano eta Oriaraino luzatzen zela. Oria ibairainokoak bereak bazituen Orio ere hala izango zuen. Auzoa 1379. urtean bihurtu zen herri, Gaztelako Joan Lak forua emanda. Orio harresiz inguratzeke eta jendez betetzeko baimena eman

Argazkian, Oria ibaia. Saiatu irudikatzen parroikiko atariraino itsasoa. Elizatik gertu zegoen itsasorako atea eta aldapan gora Orio herria, Kale Nagusiak alderik alde etxeak zituela. Garai bateko kontuak dira horiek, noski.





Ezkerrean Kale Nagusia. Eraikin eder asko dago kale horretan, horien artean, eskuinean dagoen Uzkun etxea, XVI. mende amaierakoa.

zuen erregeak; noski, ordurako jendea bizi zen bertan.

Aguirrek dio XVII. eta XVIII. mendeetako agiriak direla ugarienak eta beraz garai horretako Orio nolakoa den dakigu gehien. Eragin diezaiozun berri buruari. Nola biziko ziren orduko oriotarrak? Buruaskiak ziren, itsasoa eta ibaia zituzten. Garraiorako balio zuten biek, baina elikabide ere baziren. Itsasoak eman emango zuen, zeren bisigua, esate baterako, eskabetxean jartzen zuten freskoa jateko gehiegi harrapatzen zutelako. Oriotarrak Donostia, Andoain eta Tolosaraino joan ohi ziren eguneko arraina saltzera. Arrantzaleak, eta ondorioz, merkataria eta ontzioletako langileak ziren herrian. Eta ezin ahaztu harrobieta-ko langileak. Donostia eta Orio lotzen dituen Mendizorrotz mendigunea hareharrizkoa da eta hori

txiki-txiki egiteko 27 harrobi baziren garai batean. Ateratako hareharria etxeak egiteko, errotetarako eta zorrozkaile gisa erabiltzen zuten.

Kale bakarraren inguruan eraikitako auzotxoak almendra itxura aspaldi galdu zuten, aspaldi hasi zen herria itsasoa urrutiratu nahian, hazi egin baita Orio eta tokia behar.

### Hirigune historikoa gaur egun

Aldapan dagoen kale festa ezkutu xamarrean geratzen da, parte zaharra alegia. Makina batek kiskalduko zuen bizkarra hondartzan luze-luze etzanda, ondoren eztarria freskatuko zuten herriko tabernetan, baina maldan gora abiatzea okurritu ez. Irudimenarekin bada ere, garai bateko Orio gogoraraziko diguten kale eta eraikinak bisitatuko ditugu.

Behetik gora hasita, elizarekin egingo dugu topo. San Nikolas

Bariko parrokia lehendik zegoen gotiko estilokoaren gainean altxatutako eraikin errenazentista da, XVI. mendekoa. Bertan talaiarena egiten zuten ur gaineko pasabidea zegoen, itsasoa gertu zuenaren seinale. Tradizioak dioenez, San Martingo ermita da Orioko antzinako parroikia. XIII. mende aurrekoa da eta XVI. mendean zaharberritua. Ermitaren sabaitik itsasontzia dago zintzilik, "San Nikolas-Orio" izenekoa. Ermita kostaldeko Done Jakue biderei lotutako monumentu bezala sailkatuta dago. Parrokia eta ermita alde batera utzita, ezin aipatuko ditugu eraikin esanguratsu guztiak artikulu honetan, baina lagungarri izango delakoan bisitatzea merezi duten tokiak aipatuko ditugu: Herriko Plaza, Kale Nagusia, Antxiola, San Nikolas, Aritzaga eta Oa kaleak.

Kale Nagusian nahi adina eraikin interesgarri dago. Mitxelena da horietako bat. XVI. mendekoa da, San Nikolas haurtzaindegiko mojak bizi izan zirenekoa. Bestiak Buruandiena eta Uzkun etxea dira, ustez lehena XVII. mendekoa eta bigarrena XVI. amaierakoa. Kale Nagusian dago baita ere Maria Maestraren (1883-1962) haurtzaindegia izandakoa. Longa jauretzea berriz, XVI. mendeko eraikin ederra da.

Antxiola kaleko Claessens etxea aipatuko dugu bukatzeko. Izen hori du XIX. mendean Santiago Claessens bizi izan zelako, baina lehenago Antxiola almiranteak hartu zuen ostatu. 1555etik jendea bizi zela badakigu eta Torre etxea izenez da ezaguna. Jauretze horrek goialdetik Orioko harresia ixten zuen. ■

